Ezezkoa emana zaienak deklaratzea VI. eranskina
*Declaracion de denegados anexo VI*

| IFK<br>*CIF* | ENPRESA<br>*EMPRESA* | Kontratatutako pertsona<br>*Persona contratada* |
|---|---|---|
| A28059269 | Fundiciones Estanda | Jose Manuel Gomez |
| B20707139 | Lks Ingenieria, S. Coop. | Nicolas Rehermann |
| F20780276 | Aotek | Pablo De La Fuente |
| F20780276 | Aotek | Jose Emilo Oti |
| B64227382 | Rdt | Javier Martiño Vazquez |

Ezezkoa emana zaienak deklaratzea I. eranskina
*Declaracion de denegados anexo I anexo*

| IFK<br>*CIF* | ENPRESA<br>*EMPRESA* | Kontratatutako pertsona<br>*Persona contratada* |
|---|---|---|
| B20897641 | Instituto Ibermatica de Innovacion | Elisabet Urrea Cuena |

## 1090

EBAZPENA, 2008ko otsailaren 4koa, Kontsumo eta Industria Segurtasuneko zuzendariarena, eraikinetan instalazio termikoak, gas-hartzaileak, petrolioaren gas likuatuak biltegiratzeko instalazioak eta obretarako eta beste aplikazio batzuetarako dorre-garabiak zerbitzuan jartzeko prozedura telematikoa arautzen duen Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2008ko urtarrilaren 9ko Aginduak aipatzen dituen ziurtagirien izapidetzearen eta eskakizunen ezaugarriak zehazten dituena.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2008ko urtarrilaren 9ko Aginduak ezarri zituen eraikinetan instalazio termikoak, gas-hartzaileak, petrolioaren gas likuatuak biltegiratzeko instalazioak eta obretarako eta beste aplikazio batzuetarako dorre-garabiak zerbitzuan jartzeko prozedura telematikoaren irizpide orokorrak, eremu horretan herritarrei Administrazioarekin bitarteko telematikoen bidez harremanak izateko aukera emateko, eta Administrazioari, aldiz, bitarteko horiek batez ere administrazio-izapideetan kanpoeraginkortasunez erabiltzeko aukera emateko.

Arestian adierazitako aginduan ezarritako izapidetze-prozedura Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren eta Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren organo eskudunak emandako Ebaz-

## 1090

RESOLUCIÓN de 4 de febrero de 2008, del Director de Consumo y Seguridad Industrial, por la que se especifican las características de la tramitación y de los requerimientos de los certificados a que se refiere la Orden de 9 de enero de 2008, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el procedimiento telemático para la puesta en servicio de instalaciones térmicas en los edificios, receptoras de gas, almacenamiento de gases licuados del petróleo y grúas torre para obras y otras aplicaciones.

La Orden de 9 de enero de 2008, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, estableció los criterios generales del procedimiento telemático para la puesta en servicio de instalaciones térmicas en los edificios, receptoras de gas, almacenamiento de gases licuados del petróleo y grúas torre para obras y otras aplicaciones, con la finalidad de facilitar a los ciudadanos, en este ámbito, la posibilidad de relacionarse con la Administración por medios telemáticos y a la Administración la posibilidad de hacer uso de estos medios principalmente en los tramites administrativos con eficacia externa.

El procedimiento de tramitación establecido en la Orden antes citada se desarrolla mediante la utilización de las aplicaciones informáticas aprobadas por Resoluciones dictadas por el órgano competente del Departa-

penek onarturiko aplikazio informatikoak erabilita garatzen da.

Agindu horretako azken xedapenen artean Lehenak ahalmena ematen dio Kontsumo eta Industria Segurtasuneko zuzendariari Agindua garatu eta aplikatzeko beharrezko Ebazpenak emateko.

Horregatik, honako hau

XEDATU DUT:

*1. artikulua*.– Xedea.

Ebazpen honen xedea: eraikinetan instalazio termikoak, gas-hartzaileak, petrolioaren gas likuatuak biltegiratzeko instalazioak eta obretarako eta beste aplikazio batzuetarako dorre-garabiak zerbitzuan jartzeko prozedura telematikoa arautzen duen Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2008ko urtarrilaren 9ko Aginduak aipatzen dituen ziurtagirien izapidetzearen eta eskakizunen ezaugarriak zehaztea da.

*2. artikulua*.– Izapidetze telematikoaren prozedura.

Eraikinetan instalazio termikoak, gas-hartzaileak, petrolioaren gas likuatuak biltegiratzeko instalazioak eta obretarako eta beste aplikazio batzuetarako dorre-garabiak zerbitzuan jartzeko prozedura telematikoa arautzen duen Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2008ko urtarrilaren 9ko Aginduak aipatzen dituen ziurtagirien izapidetzeetakoren bat egiteko interesa dutenek, honako jardun hauek egin beharko dituzte:

a) www.euskadi.net/industria helbidean sartuko dira.

b) Aplikazio informatikora sartzeko herritar-ziurtagiri aitortuarekin identifikatuko du bere burua.

c) Aktibaturiko prozeduraren bat hautatuko du, izapidetze telematikoaren altan aldez aurretik definituriko profilaren arabera, eta inprimakien datuak bete eta dagozkion fitxategiak erantsiko ditu.

d) Aplikazioak inprimaki edo fitxategi baten sinadura elektronikoa eskatzen badu, erabiltzaileak sinatuko du ziurtagiri elektroniko aitortua biltzen duen txartel kriptografikoa erabilita eta dagokion PINa tekleatuta.

e) Eskaera jasotzerakoan aurkezpen-ordainagiria erakutsiko zaio igorleari, eta hark inprimatu eta deskargatzeko, eta beretzat gordetzeko aukera izango du. Ordainagirian —ziurtagiri elektroniko batean oinarrituriko sinadura elektronikoa erabiliko da ordainagiria sortzeko—, igorlearen eta jasotzailearen identifikazioa jasoko da, baita sarrera-erregistroaren zenbakia, izapidearen izena, eta zer egunetan eta ordutan aurkeztu den ere.

mento de Industria, Comercio y Turismo y del Departamento de Hacienda y Administración Pública del Gobierno Vasco.

La Disposición Final Primera de la citada Orden faculta al Director de Consumo y Seguridad industrial para dictar las Resoluciones necesarias para el desarrollo y aplicación de la Orden.

Por todo lo expuesto,

DISPONGO:

*Artículo 1*.– Objeto.1

Es objeto de la presente Resolución la especificación de las características de la tramitación y de los requerimientos de los certificados a que se refiere la Orden de 9 de enero de 2008, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el procedimiento telemático para la puesta en servicio de instalaciones térmicas en los edificios, receptoras de gas, almacenamiento de gases licuados del petróleo y grúas torre para obras u otras aplicaciones.

*Artículo 2*.– Procedimiento de la tramitación telemática.

Los interesados en realizar alguno de los trámites previstos en la Orden de 9 de enero de 2008, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el procedimiento telemático para la puesta en servicio de instalaciones térmicas en los edificios, receptoras de gas, almacenamiento de gases licuados del petróleo y grúas torre para obras u otras aplicaciones., realizarán las siguientes actuaciones:

a) Se accederá a la dirección web: www.euskadi.net/industria.

b) Se identificará con su certificado reconocido de ciudadano para el acceso a la aplicación informática.

c) Seleccionará algunos de los procedimientos activados, de acuerdo con el perfil previamente definido en el alta en la tramitación telemática, y cumplimentará los datos de los formularios y anexará los ficheros pertinentes.

d) En los casos en que la aplicación solicitara la firma electrónica de un formulario o fichero ésta se efectuará por el usuario mediante el empleo de la tarjeta criptográfica que contiene el certificado electrónico reconocido y el tecleado del PIN correspondiente.

e) En el momento de la recepción de la solicitud se mostrará el recibo de presentación al remitente, quien tendrá la opción de imprimirlo o de descargarlo y conservarlo en su poder. En el recibo, en cuya generación se empleará la firma electrónica avanzada basada en un certificado electrónico, se hará constar la identificación del remitente y destinatario, número de registro de entrada, denominación del trámite y fecha y hora de su presentación.

*3. artikulua.*– Aplikazioa erabiltzeko baldintza orokorrak.

1.– Ebazpen honek aipatzen duen aginduan aurreikusitako izapide telematikoak egiteko, Ziurtagiri Elektroniko aitortua eduki beharko da honako baldintza hauetan:

• UIT X. 509. V. gomendioa edo maila goragokoren bat betetzen duen ziurtagiria izango da, Izenpe, SA Zerbitzu Emailearen «Herritarraren Ziurtagiri Elektroniko aitortua» deituriko motakoa.

2.– Era berean, enpresa baimenduen kasuan beharrezkoa izango da beren izenean izapidetu nahi duten lagunek alta hartzea izapidetze telematikoan, eta horretarako arestian adierazitako aginduan bilduriko eranskina bete beharko da.

3.– Erabiltzailearen ordenagailu pertsonalean erabili beharreko softwarea une oro Informatika eta Telekomunikazio zuzendaritzak ezarritako estandarrei egokituko zaio.

*4. artikulua.*– Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Lurralde Bulegoek sinadura sortzeko erabilitako ziurtagirien baldintzak.

1.– Administrazioak aurrera eramaten dituen jardunetan, «erakunde publikoen zerbitzurako langileak» deituriko ziurtagiri aitortutik abiatuta sortuko da sinadura elektroniko aitortua; ziurtagiri horrek UIT X. 509.V. edo maila goragoko gomendioa beteko du, eta Izenpe, SA Ziurtapen Zerbitzuen Emaileak emango du.

2.– 2008ko urtarrilaren 9ko Aginduaren 11. artikuluan aurreikusitako erabileretarako «aplikazio-ziurtagiria» erabiliko da; ziurtagiria Izenpe, SA Ziurtapen Zerbitzuaren Emailearena da, eta UIT X. 509.V. edo maila goragokoak beteko ditu.

Aplikazioak berak sinaturiko mezu edo fitxategien egiazkotasuna eta osotasuna ziurtatzeko aplikazio informatiko batek erabilitako ziurtagiria da, eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren dagokion lurraldebulegoa identifikatuko du aplikazio informatikoa erabiltzen duen organo gisa.

*5. artikulua.*– Profesionalen elkargoek elektronikoki bisatutako obra-zuzendaritzako proiektu eta ziurtagiriak Administrazioak onartzeko baldintzak.

1.– Interesdunek telematikoki aurkezten dituzten obra-zuzendaritzako proiektu eta ziurtagiriek dagokien profesionalen elkargoaren bisatu elektronikoa izan beharko dute. Horretarako, Elkargo horiek honako ezaugarri hauek izango dituen Ziurtagiri Elektronikoa erabili beharko dute:

a) Elkargokideek Izenpe, SA Ziurtapen Zerbitzuen Emaileak emandako «Herritarraren Ziurtagiri Elektro-

*Artículo 3.*– Condiciones generales de uso de la aplicación.

1.– Para realizar los trámites telemáticos previstos en la Orden a que se refiere la presente Resolución, será necesario disponer de Certificado Electrónico reconocido en los términos siguientes:

• Será un certificado que cumplirá la recomendación UIT X. 509. V. o superiores, del tipo denominado «Certificado Electrónico reconocido de ciudadano» del Prestador de Servicios de Certificación Izenpe, S.A.

2.– Asimismo, será necesario que las personas que pretendan tramitar en el nombre de las empresas autorizadas se den de alta en la tramitación telemática, a cuyo efecto habrá de cumplimentarse el anexo recogido en la Orden antes citada.

3.– El software que se debe utilizar en el ordenador personal del usuario se ajustará a los estándares establecidos por la Dirección de Informática y Telecomunicaciones en cada momento.

*Artículo 4.*– Condiciones de los certificados utilizados para la generación de la firma por las Oficinas Territoriales del Departamento de Industria, Comercio y Turismo.

1.– En las actuaciones que se lleven a cabo por la Administración, la firma electrónica reconocida se generará a partir del certificado reconocido de «personal al servicio de las entidades públicas» que cumplirá la recomendación UIT X. 509.V. o superiores y será emitido por el Prestador de Servicios de Certificación Izenpe, S.A.

2.– Para los usos previstos en los artículo 11 de la Orden de 9 de enero de 2008 se utilizará el denominado «certificado de aplicación» del Prestador de Servicios de Certificación Izenpe, S.A. y que cumplirá la recomendación UIT X. 509.V. o superiores.

Se trata de un certificado empleado por una aplicación informática para asegurar la autenticidad e integridad de los mensajes o ficheros firmados por la propia aplicación y que identificará a la Oficina Territorial correspondiente del Departamento de Industria, Comercio y Turismo como órgano que utiliza la aplicación informática.

*Artículo 5.*– Condiciones para la admisión por la Administración de los proyectos y certificados de dirección de obra visados electrónicamente por los Colegios Profesionales.

1.– Los proyectos y certificados de dirección de obra que se presenten telemáticamente por los interesados deberán haber sido visados electrónicamente por el Colegio Profesional correspondiente. A tales efectos, será necesario que dichos Colegios utilicen un Certificado Electrónico con las siguientes características:

a) El certificado que utilizarán los colegiados será un certificado electrónico del tipo denominado «Certifica-

niko Aitortua» izendaturiko ziurtagiria erabiliko dute.

b) Elkargokide Profesionalek erabiliko duten ziurtagiri elektronikoa Izenpe, SA Ziurtapen Zerbitzuen Emaileak emandako «Aplikazio Ziurtagiri» motakoa izango da; ziurtagiri horrek aplikazio informatikoa erabiltzen duen Profesionalen Elkargoa identifikatuko du.

2.– Era berean, administrazio-espedientea gordetzeko epearen barruko edozein unetan bisatu elektronikoaren baliozkotasuna egiaztatu ahal izateko, bisatua egiteko erabilitako ziurtagiriaren denbora-zigilua eta indarraldiaren egiaztagiria erantsi beharko da. Horretarako, denbora-zigilua eta ziurtagiriaren indarraldiaren baliozkotzea OCSP (Online Certificate Status Protocol / ziurtagiriaren egoeraren linea-bidezko egiaztapena) protokoloaren bitartez egingo da, IETFaren 2560 RFCan adierazten denari jarraiki.

*6. **artikulua**.*– Ziurtagiri elektronikoak eskatzea, kudeatzea eta ematea.

1.– Nor diren egiaztatzeko, administrazio-ahalmenak baliatzen dituen erakunde publikoren bateko zerbitzuen langileen aurrera bertaratu beharko dira, eta beren NANa erakutsi beharko diete. Europar Batasuneko Estatukideetako edo Europako Espazio Ekonomikoan dauden estatuetako herritar atzerritarren kasuan, AIZ bat eskatu ahal izango zaie, indarrean dagoen nortasun-agiriarekin batera. Erkidegoaz kanpoko herritarrak badira, Bizileku Txartela eskatu ahal izango da.

Bulegoen zerrenda eguneratua eta horien ordutegia honako helbide honetan kontsultatu ahal izango da: http://www.euskadi.net/industria.

2.– Ziurtagiriak eskatu, kudeatu, eman eta baliogabetzeko baldintza tekniko, operatibo eta segurtasun-arlokoak Izenperen Ziurtapen Praktiken Aitorpeneko dokumentuan daude deskribatuta, honako helbide honetan argitaraturikoa: www.izenpe.com/pki.

AZKEN XEDAPENA

EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera jarriko da indarrean ebazpen hau.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko otsailaren 4a.

Kontsumo eta Industria Segurtasuneko zuzendaria,
RUBEN MENDIOLA ERKOREKA.

do Electrónico Reconocido de Ciudadano» del Prestador de Servicios de Certificación Izenpe, S.A.

b) El certificado electrónico que usarán los Colegios Profesionales será del tipo denominado «Certificado de aplicación» del Prestador de Servicios de Certificación Izenpe, S.A., que identificará el Colegio Profesional que utiliza la aplicación informática.

2.– Asimismo, a fin de permitir la comprobación de la validez del visado electrónico en cualquier momento del plazo de conservación del expediente administrativo, se deberá acompañar de sellado de tiempo así como de la verificación de la vigencia del certificado empleado para generar el visado. A tales efectos el sellado de tiempo y la validación de la vigencia del certificado se efectuará mediante el protocolo OCSP (Online Certificate Status Protocol /Verificación en línea del estado del certificado) según se define en la RFC 2560 del IETF.

***Artículo** 6.*– Solicitud, gestión y emisión de los certificados electrónicos.

1.– Para la comprobación de su identidad las personas interesadas deberán personarse ante el personal al servicio de alguna de las Entidades Públicas que ejercen potestades administrativas, debiendo mostrar su DNI. En el caso de ciudadanos extranjeros de Estados miembros de la Unión Europea o de Estados que forman parte del Espacio Económico Europeo, será exigible un NIE acompañado de un documento de identidad en vigor. Si se tratara de ciudadanos extracomunitarios, será exigible la Tarjeta de Residencia.

La relación actualizada de oficinas, así como su horario, se podrá consultar en la dirección web: http://www.euskadi.net/industria.

2.– Las condiciones técnicas, operativas y de seguridad relativas a la solicitud, gestión, emisión y revocación de los certificados se encuentran descritas en el documento de Declaración de Practicas de Certificación de Izenpe publicado en la dirección: www.izenpe.com/pki.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Resolución entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 4 de febrero de 2008.

El Director de Consumo y Seguridad Industrial,
RUBEN MENDIOLA ERKOREKA.